



EBAZPENA, 2023ko AZAROAREN 9koa, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ORDEZKAPENAK EGITEKO 2023ko URRIAREN 6an IREKI ZIREN ORDEZKOGAIEN APARTEKO ZERRENDETAN ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urriaren 6ko ebazpenaren bidez ordezkapenatarako izangaien aparteko zerrendak ireki ziren Bigarren Hezkuntzan, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna salbuetsiz. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8.3.3., 14 eta ondorengo artikuluetan eta horren aldaketetan ezarritako baldintzen arabera egin zen.

Zerrenda horietan onartu eta baztertuen behin-behineko ebazpena argitaratu denez, 2023ko urriaren 23tik 27ra bitartean, biak barne, aurkeztutako eskabideei dagokionez, behin-behineko zerrenda horien aurka aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta akatsak zuzendu ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu behar da.

Deialdi horretan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Argitara ematea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez irekitako Bigarren Hezkuntzako ordezkapen-zerrendetan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrendak, bai eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak ere, baztertzeko arrazoiak adierazita.

Bigarrena.- Ordezkapenetako zerrenda horiek osatzen dituzten ordezkogaiak aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera ordenatzen dira, alfabetikoki, izen-deituren arabera, 2023-2024ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehaztuko duen letra aukeratzeko zozketaren emaitzaren arabera. Zozketa horren emaitza Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko urriaren 21eko ebazpenaren bidez eman zen argitara: J letra.

Hirugarrena.- Onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak kontsultatu ahal izango dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> orrian / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrendak irekitzea” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi itxia dutenak (Prozesuaren Segimendua)” estekan klik eginez.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/ orrian / Lan-arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenatarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2023-10-06ko deialdia, eta <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> estekan klik eginez.

Bi kasuetan edozeinetan, aldez aurretik erabiltzailearen eta pasa-hitzaren klabeak sartu beharko dira. Klabe horiek izan edo gogoratu ezean, <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> orrian lortu ahal izango dira, “Pasahitza eskuratu (edo berreskuratu)” estekaren bidez.



Ondoren, eta “Kontsulta pertsonalizatua” estekan klik eginez, egindako eskaerari buruzko banakako informazioa lortu ahal izango da.

Zerrendatik at geratu diren pertsonen kasuan, “Kontsulta pertsonalizatuen” atal horretan bertan ikusi ahal izango da/dira kanpoan geratu izanaren arrazoiaren xehetasun konkretua.

Laugarrena.- Behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen honen aurka interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, aipatu ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtoak aurkez daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. Artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 9